

Koralaren distira



JUSTIFIKAZIOA

Plastikoen erabilera neurrigabeak eta hauek sortzen dituzten hondakinen kudeaketa okerrak goraka doan itsasoen eta ibaien kutsadura arazo larria eragiten du. Pertsona kontsumitzaileok horretaz kontziente izan behar dugu eta arazoa gutxitzeko konponbideak bilatu.

HELBURUAK

- Plastikoen eragindako kutsadurak ingurumenean, batez ere ur ingurumenean, zelako eragina duen ezagutaraztea.
- Egoera honi buruz kontzientziatzea eta jendearen konpromisoa sustatzea plastikoen erabilera masiboaren aurrean konponbideak bilatzeari dagokionez.

EDUKIAK

- Itsas kutsaduraren hastapena.
- Nola eragiten duten plastiko hondakinek, haien kudeaketa okerrak eta birziklapen faltak itsas ekosistemarengan.
- Plastikoen murrizketa eta birziklapena.

JARDUERAK

HASIERAKO FASEA (Aurretiko jarduera)

Itsasoen egoerari buruzko ideiak eta marrazkia itsasoak bere azalaren azpian haien ustez nola dauden aurkeztuz.

GARAPEN FASEA (Saioa)

- Itsas kutsaduraren hastapena.
- Ipuin kontalaria "Koralaren distira" euskarri bisual eta partizipatiboarekin.
- Horma-irudi partizipatiboa.
- Konklusioak.

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (Ondorengo jarduera)

Egindako horma-irudiaren erakusketa.

OROKORTZE ETA TRANSFERENTZIA FASEA

Hondakinen bilketa gertuko hezegune, ibai, hondartza edo beste natura-gune batean. Ingurumena zaintzeko ideia gehiago.

OINARRIZKO KONPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

DISZIPLINAKOAK

- Konpetentzia komunikatibo, linguistiko eta literarioa.
- Konpetentzia zientifikoa.
- Konpetentzia sozial eta zibikoa.
- Konpetentzia artistikoa.

ZEHARKAKOAK

- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- Elkarbizitzarako konpetentzia.
- Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.
- Izaten jakiteko konpetentzia.

METODOLOGIA

- Lan kolaboratiboa.
- Elkarrizketa-ikaskuntza.
- Design Thinking.
- Visual Thinking.

ANTOLAKUNTZA

*IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
<ul style="list-style-type: none">• Ordenagailua.• Proiektorea eta kanoia edo PDI.	Taldea U moduan esertzen da, denok elkar ikus dezaten. Erdian, horma-irudia eta hezitzailea jartzen dira.	60'

EBALUAZIOA

IRAKASLEAK

Asebetetze inkesta.

IKASLEAK

Asebetetze inkesta.